

KANALAK

Balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iritsiko den erabakitzea funtsezkoa da, hau da, gure kanalak zehaztea. Bezeroekin harremana oso garrantzitsua da eta ezinbestekoa da harreman hau ahalik eta gehien zaintzea. Horregatik, kanala ondo aukeratzea halabeharrezkoa da haiengana ahalik eta gehien iristeko asmoarekin.

Bi kanal mota bereiz ditzakegu: kanal zuzenak, hots, bitartekariak saihesten dituztenak, eta zeharkako kanalak, dendak (propioak edota elkartuak) eta dendei handizkako salmenta egiten dieten handizkariak. Gure enpresaren ezaugarriak aztertuta, iruditzen zaigu kanal zuzena dela gure enpresaren beharretara hoberen egokitzen dena. Gure bezeroei zerbitzu bat eskainiko diegu, ez ondasun bat, eta zerbitzu hori erabili ahal izateko aurretik egindako erreserba beharrezkoa izango da. Hori dela eta, guk sortutako eta kudeatutako aplikazio bat sortzea da gure asmoa. Hori horrela izanda, ez dugu inolako bitartekaririk beharko.

Aplikazioa sortzea ideia egokia iruditzen zaigu, gure bezeroen adin tartea kontuan hartuta. Izan ere, gazteok sarritan denboraz larri ibiltzen gara eta erreserba presentzialki egitera behartuta baldin bagaude oztopoa izan daiteke. Horren ondorioz, kaltegarria izan daiteke guretzat, bezeroak galtzeko arriskuan ikusi gaitzelako. Horrez gain, gaur egun gazte guztiek daukagu mugikorra eta bitartekari gisa erabiltzea oso eroso da, bai enpresarentzat eta bai gure merkatu-segmentazioarentzat. Gainera, aplikazioaren bitartez eguneko edozein unetan edukiko dute erreserba egiteko aukera; ez dute ordutegi finko baten presioa edukiko.

Aplikazio horren bitartez, argi dago, erabiltzaileek lokala erreserbatu ahalko dutela nahi duten egunean eta ordutegian. Halaber, egunean hogeita lau orduz *online chat* bat zabalik egongo da edozein duda argitzeko asmoarekin. Bestalde, posta elektronikoa ere eskuragarri izango dute bertatik galderak edo iradokizunak egiteko. Iradokizun hauek aintzat hartuko ditugu eta oso garrantzitsuak izango dira guretzako. Izan ere, gure zerbitzuaren funtsa erabiltzaileak izango dira eta haien erosotasun osoa bilatzea da gure helburua. Gainera, aplikazioa plataforma eta mugikor mota guztientzako egongo da eskuragarri gure bezero guztietara iritsi ahal izateko.

Zuzeneko kanala izateak etekin-marjinal handiagoa eskainiko digu, izan ere, lortzen ditugun etekin guztiak guretzako izango dira. Hala ere, jakitun gara mota honetako kanala ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa eta garestiagoa izan daitekela eta beraz horrela

funtzionatzeko lan handia egin beharko dugula. Bestela, gure kasuan ez dugu bestelako zailtasunik aurkitzen, izan ere, ondoren aplikazioaren kudeaketa zaila izanagatik, aplikazioa egitea nahiko merkea eta sinplea izango da, gure lan taldean baitugu informatikan aditua den kide bat horren arduradun izateko prest dagoena.

Azken Aldia